



NAFARROAKO PARLAMENTUKO

ALDIZKARI OFIZIALA

XI. legegintzaldia

Iruña, 2024ko apirilaren 2a

49. ZK.

A U R K I B I D E A

F SAILA:

Galderak:

- 11-23/PES-00224. Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (2. or.).
- 11-23/PES-00225. Galdera, Merkatuko Aurrekontsultari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (3. or.).
- 11-23/PES-00226. Galdera, ekintzailletza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (5. or.).
- 11-23/PES-00227. Galdera, azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobreziari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (7. or.).
- 11-23/PES-00228. Galdera, haur pobreziak Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00229. Galdera, Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (8. or.).
- 11-23/PES-00230. Galdera, Nafarroan haur pobreziaren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (13. or.).
- 11-23/PES-00231. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (14. or.).
- 11-23/PES-00232. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (15. or.).
- 11-23/PES-00233. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateei buruzkoa. Foru Diputazioaren erantzuna (16. or.).

F saila:
GALDERAK

11-23/PES-00224. Galdera, Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 5ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak idatziz erantzuteko galdera egin du Nafarroako Gobernuaren, Buenos Airesko Unibertsitatearen eta Nafarroako Unibertsitate Publikoaren arteko hitzarmenari buruz (11-23/PES-00224). Hona Nafarroako Gobernuko

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroako Gobernuaren Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko Departamentua eta Nafarroako Unibertsitate Publikoa elkarlanean aritu dira hitzarmenaren irismena, gaiak eta edukiak definitzeko.

Elkarrekin egindako lan horri esker, Nafarroako Unibertsitate Publikoaren eta gure Departamentuaren arteko hitzarmenaren zirriborroa sortzen ari da, eta laster helaraziko zaio Buenos Airesko Unibertsitateari, egoki iritzitako ekarpenak egiteko aukera izan dezan.

Ekarpen horiek jaso ondoren, espero da hitzarmena behin betiko zehaztea eta izenpetzea.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 4an

Unibertsitateko, Berrikuntzako eta Eraldaketa Digitaleko kontseilaria: Patricia Fanlo Mateo

11-23/PES-00225. Galdera, Merkatuko Aurrekontsultari buruzkoa**FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA**

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Ángel Ansa Echegaray jaunak Merkatuko Aurrekontsultari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 15eko 48. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Ángel Ansa Echegaray jaunak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00225):

1.- Zenbat proposamen aurkeztu ziren Merkatuko Aurrekontsultara?

Aurkeztutako informazioaren kopia.

2.- Zehazki, zer fasetan dago gaur egun proiektua?

3.- Bideragarria izanen al da proiektu hori?

4.- Baiezkoan, noizko aurreikusten dute hurrengo fasera (lizitazioa) aurreratzea eta zer epe eta aurrekontu izanen ditu proiektuak?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialerako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguako kontseilariaren erantzuna:

Zortzi proposamen aurkeztu ziren. Eranskinen informazioa jaso da proposamenei buruz.

Proiektua ezetsi egin zen ikusi zelako proposamenetako soluzio guztiek hartzen zutela barne artatutako pertsonen datu biometrikoen tratamendua egitea. Nafarroako Gobernuaren Datuen Babeseko Ordezkaritzarekin zenbait bilera izan ostean, erabaki zen proiektuak ez zituela gaindizten datu babesaren inpaktuaren ebaluazio baten egokitasuneko, proportzionaltasuneko eta premiarikoa judizioak.

Gaur egun ez da bideragarria, funtsean, potentzialki tratamenduaren xede izanen diren datuen babesa dela-eta.

ERANSKINA: AURKEZTUTAKO PROPOSAMENAK

ENPRESA	AURREKONTUA	EPEA	DESKRIBAPENA
INTENSAS NETWORKS SL	160.000+1600c	15 hilabete	Proposamenaren xedea da ikusmen artifiziala eta adimen artifiziala duten kameren sistema bat ezartzea, jarrera disruptiboen detekzio goiztiarra egin ahal izateko zaharren egoitzetan, arriskuak prebenitzeko. Horren bitartez, egoiliarren bizi kalitatea hobetu nahi da, beren segurtasuna bermatu nahi da eta beren senide eta zaintzaileak lasai egon daitezen lortu nahi da.
IED ELECTRONICS SOLUTIONS SL			Alderdi interesdun gisa kontuan hartuak izatea programan parte hartzeko, jadanik badutelako xedearekin erabat bat etor daitekeen soluzio bat.
STRATESYS TECHNOLOGY SOLUTIONS	250.000,00	3-5 hilabete	Eredu prediktibo bat entrenatuko da, iragarpeneko xede duena jarrera disruptiboetako bat: nahasmendu ezkor desafiatzailea, asaldur esplosibo intermitentea, portaeraren nahasmendua, nortasun antisozialaren nahasmendua, besteak beste.
INDRA SOLUCIONES TI SLU	443.200,00	12 hilabete	Desgaitasunen bat duten pertsonetan jarreraren eta emozioen patroiak detektatzeko eredu bat ezartzea, ikasten joanen dena patroia horietan desbiderapenak noiz dauden eta agresibitate egoeretara eramaten ahal duten, ezinbestekoa da esku hartze goiztiarrerako eta egoera arriskutsuak saihesteko.

ENPRESA	AURREKONTUA	EPEA	DESKRIBAPENA
TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES DE ESPAÑA SAU	248.337,00	14 hilabete	Egoiliarra portaeraren nahasmenduko prozesu batean sartzen dagoenean detektatzea eta arreta ematea. Eta prebenitzea. Portaera horiek prebenitzeko beroriek eragiten dituzten kausak egokiro ezagutu behar dira. Oro har fisiologikoak izanen dira (komunera joateko gogoa, txarto lo egitea...), edota ingurumenak eragindakoak ere bai (zarata gehiegi gelan, beroa...).
TELEFÓNICA SOLUCIONES DE INFORMÁTICA Y COMUNICACIONES DE ESPAÑA SAU	285.000,00	6 hilabete	Plataforma analitiko bat ezartzea, trenen, teknologien eta prozesuen multzo bat, alegia, datuen zientifikoei aukera emateko datuen multzo handiak biltzeko, prozesatzeko, aztertzeko eta ikusteko.
UJI (Universidad Jaime I, Castelló) AIN (Nafarroako Industriaren Elkartea)	250.000-400.000	12-18 hilabete	Datuak bildu, anonimizatu eta enkriptatuko dira, egokiro ikuskatutako hodeiko zerbitzarietan biltegitzeko. Horiekin eredu estatistiko pertsonalizatuak sortzen ahalko dira, ikasketa autonomoko teknikan oinarrituta, egoiliarren portaerak deskribatze aldera. Sortutako ereduak, sistemak bildutako datu berrien gainean eragiketak egitean, portaera disruptiboak aurretiaz detektatzeko balioko dute. Etorkizunean «arrisku», eredu eta datu guztiak eskuratzen ahalko dira web bidezko kontrol koadro baten bitartez.
YSIUM MEDICAL SL	300.000,00	Ez du adierazi.	Detectiene Nafarroako egoitzetan komunikatzeko zailtasuna duten pertsonetan portaera disruptiboak detektatu eta prebenitzeko soluzio bat da, wearable tresnak eta gailu mugikorra erabilita.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 20an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilaria: María Carmen Maeztu
Villafranca

11-23/PES-00226. Galdera, ekintzailtza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin María Isabel García Malo andreak ekintzailtza proiektuen merkataritza-kudeaketa babeste aldera Nafarroako Gobernuak hartutako neurriei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari Maribel García Malo andreak galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00226):

- Zer neurri jarri du abian Nafarroako Gobernuak, zehazki, ekintzailtza-proiektu baten kudeaketa komertziala hasieratik laguntzeko?

Hona Nafarroako Gobernuak Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilariaren erantzuna:

Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiak ekintzailtza-erantzaren esparruan ematen duen laguntza jarduketara ildo propio baten bitartez gauzatu da: Nafarroako Lan Autonomoaren II. Planaren koordinazioa Nafarroako Kontseilu Autonomoaren markoan eta ekintzailtza-erantzaren inguruan jarduerak gauzatu dituzten Nafarroako Gobernuaren beste erakunde eta departamentu batzuekin inbrikatzea. Alabaina, gure jarduketak ez dira kudeaketa komertzialaren inguruan garatzen, PES galderan adierazten denez; aitzitik, jarduketok laguntza integral bat hartzen dute barne ekintzailtza-erantzaren jarduerara abian jartzeko, eta, argi denez, horrek azterketa komertziala eta kudeaketakoa behar du aurreko bideragarritasun planaren markoan, negozio plangintza orok behar baitu.

Zehazki, 2.500 biztanle baino gutxiagoko herrietan kokatutako negozioak eskualdatzeagatik ordaindutako gastuak estaltzeko autonomoentzako dirulaguntza-lerroak, 2023an zehar, 100.000

euro eman ditu kontzeptu horretarako, autonomo hasteko eta autonomo izatea sustatzeko eta biztanlegune txikietan kokatutako negozioak mantentzeko; onuradun bakoitzak 12.000 eurora arte jaso du. Laguntza horrek barne hartzen du bideragarritasun azterlan bat, ekintzailtza-kudeaketa tresna bat izan dezan aukera ematen diona bere estrategia komertziala ahalik ondoen bideratzeko, Nafarroako Merkataritza Ganberak aztertutako eta lagundutako analisi baten isla, Ekonomia Sozialeko eta Laneko Zuzendaritza Nagusiarekin dagoen lankidetzak-akordio baten bidez. Era berean, landa eremuetako ekintzailtza mota horrek Tokiko Ekintza Taldeetako aholkularitza ere badu, eta taldeok lankidetzak koordinatzen aizen dira Lan Autonomoaren Atalarekin batera.

Neurri hori sartuta dago Nafarroako Lan Autonomoaren II. Planean, 4. jarduketara ildoan, hain zuzen ere: Kalitatezko enplegu autonomoa eta erresilientea, belaunaldi aldaketa eta aldaketa enpresariala sustatzearen bitartez.

Halaber, topagune bat ere badago ekintzailtza garatzeko: www.Navarremprende.com webgunea. Nafarroako Enplegu Zerbitzuak kudeatzen du eta askotariko informazio erabilgarria du bertan, aholkularitza eta laguntza emate aldera negozio autonomoaren kudeaketaren inguruan, barne hartuta kudeaketa komertzialarekin lotutako alderdiak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 27an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enplegu Kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilariaren erantzuna

Nafarroako Alderdi Popularrari atxikitako foru parlamentari María Isabel García Malo andreak idatziz erantzuteko galdera egin du, jakiteko Nafarroako Gobernuak zer neurri jarri duen abian ekintzailtza-erantzaren proiektu baten kudeaketa komertziala hasieratik laguntzeko (11-23/PES-00226). Hona hemen Nafarroako Gobernuak Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako Departamentuko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

CEIN da Nafarroako Gobernuak ekintzailertan laguntzeko duen tresna nagusia. Kudeaketa komertziala askotariko programetako ardatz nagusietako bat da.

S4ren arabera Nafarroako sektore estrategikoetan ekintzailertan aritzeko programek, hala nola CEIN Health, CEIN Digttech eta CEIN Agrofood, azelerazio fase bat dute, edukietan eta tutoretza pertsonalizatueta sartuta, xede merkatua identifikatzeko eta horietara iristeko estrategia zehazteko.

Horrez gain, programa “bertikalizatuak” direnez, berezitasuna da sektoreko espezifikotasun komertzialak sartzen direla proiektuekin egiten den lanean. Horren adibide argia da CEIN Health, zeharo erregulatuta dauden eta kudeaketa komertziala hasieran bereziki konplexua den merkatuei heltzen baitie. Horretarako, azelerazio programan moduluak daude, adituek laguntzen dute “market access” delakoari heltzeko eta gai horien inguruko masterclass eskolak ematen dira.

Sektoreko laguntza programa horiek eskalatzeko fase bat dute jarraian startup bihurtzen diren proiektuetarako. Eskalatzeko horretan berriz ere heltzen zaio kudeaketa komertzialari, prozesu gakoetako bat baita. Horren bitartez lortzen da Nafarroako sektore estrategikoekin lotutako proiektuek, startup profila eta hazteko potentziala dutenek, ekipoak prestatzeko eskemak izan ditzaten, bai eta estrategia komertzialaren egituraketa eta tutoretzapeko garapena ere, sortzen diren unetik bertatik, startup fasean eta merkatuan dauden hasierako urteetan.

Potentzial handiko ekintzailertza proiektuekin jarraituz gero, laguntza programa nagusietako bat da Impulso Emprendedor. Nahiz eta hasi zenean, duela hamar urte, kudeaketa komertziala laneko programan jadanik barne hartu, azken edizioan bilakaera egon da eta orain duen fokua da parte hartzen duten proiektuen salmenten gainean jardutea, xede nagusia izanda proiektuok ahalik azkarren eta modurik solidoenean gauza daitezela.

Kudeaketa komertzialaren barruan kontuan hartu da ere bai nazioartekotze goiztiarreko ekintzailertza proiektuak ere badaudela. Merkataritzaren ikuspuntutik beste merkatu geografiko batzuk irekitzea egiteko konplexu samarra da. Horretarako sortu zen CEIN Internacional.

Eskualderako nazioarteko proiektuen multzo gisa, zati handi batean aurrez aipatutako programen multzotik eratorriak, CEINek kudeatutako mintegietan startupek etengabeko tutoretza jasotzen dute CEINeko ekipo teknikoaren pertsonetako baten eskutik. Jarraipen horretan barne hartzen da ere bai funtzio komertziala, horren garapena eta bilakaera.

Bestalde, ekintzailertza proiektuetan beste profil bat ere badago, hasiera batean gehienbat autenpleguaren izaera dutenak, oro har tokiko merkatuetan kokatuak, eta horietarako da RUTA 31 programa. Zerbitzu publiko horretako jarduketan xedea da, ekintzailertzarako prestatzeko ibilbide baten bitartez, negozio berriak sortzen laguntzea.

Gainera, CEINek lanean dihardu unibertsitateetan ekintzailertza sustatzeko. Zehazki, Nafarroako Unibertsitate Publikoan, adibidez, 2023an zehar bi programa luze garatu dira: Metatalent eta Oinarri teknologikoko enpresak sortzekoa; bietan funtsezkoak izan dira merkaturako begirada eta kudeaketa komertziala. Gauza bera esten ahal da Pamplona Emprende programari buruz ekintzailertza sustatzearen ildotik.

Oinarri den metodologia-eredua Business Model Canvas da, eta bezero nahiz merkatuekin kontraste azkarreko eta goiztiarreko printzipioak erabiltzen dira balio proposamena bilakatzen joan eta xede merkatuak nahi duenera egokitzeko. Oraingoan ere negozio ideien hasieratik jartzen da abian estrategia komertzial kontrastatu bat egituratzeko laguntza, proiektuek aukera izan dezaten arrakasta komertziala izateko probabilitaterik handienarekin sortzeko.

Beraz, kudeaketa komertziala ekintzailertzan laguntzeko programa guztien ardatzetako bat da, kontuan hartuta, halaber, ekintzailertza proiektuaren izaeraren espezifikotasunak, zer sektorera dauden bideratuta eta beren merkatuetako lurralde proiektzioa ere bai.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 9an

Industriako eta Enpresen Trantsizio Ekologiko eta Digitalerako kontseilaria: Mikel Irujo Amezaga

11-23/PES-00227. Galdera, azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobrezari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak azken lau urteotan Nafarroan egon den haur pobrezari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00227):

• Zein izan da haur-pobrezia bilakaera Nafarroan azken 4 urteetan?

Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Eskatutako informazioa jasota dago Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdintasunari buruzko VIII. txostenean, eta esteka honen bidez kontsultatzen ahal da:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ikerketak/vii-informe-sobre-la-pobreza-y-la-desigualdad-social-en-navarra/es-589256/>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00228. Galdera, haur pobrezia Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak haur pobrezia Nafarroan zenbat haur ukitu dituen jakiteko egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak honako galdera hau egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00228):

- Gaur egun Nafarroan haur-pobrezia ukitutako haurren kopurua?

Hori dela-eta, hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Eskatutako informazioa jasota dago Nafarroako pobrezia eta gizarte desberdintasunari buruzko VIII. txostenean, eta esteka honen bidez kontsultatzen ahal da:

<https://www.observatoriorealidadsocial.es/eu/ikerketak/vii-informe-sobre-la-pobreza-y-la-desigualdad-social-en-navarra/es-589256/>

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafraña

11-23/PES-00229. Galdera, Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroako Gobernuak haur pobrezia dela-eta 2023an egindakoari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00229). Hona hemen galdera eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

• Zer jarduketa egin du Gobernuak haur-pobrezia arloan 2023an?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Nafarroan sarrerak bermatzeko sistemak xede du zaurgarritasun egoeran dauden familia unitateei diru-sarrera jakin batzuk ematea aukera izan dezaten oinarrizko premiak ase ahal izateko.

Sistema horrek 2023an zehar adingabeak dituzten familia unitateen kopuru hauei eman die estaldura:

1. Errenta bermatua: 14.056 adingabe artatu dira 11.755 etxetan

2. Bizitzeko gutxieneko diru sarrera: 7.809 adingabe artatu dira 3.870 etxetan. Horrez gain, prestazio horrek beste laguntza osagarri bat du haurrentzako. (2023ko datuak behin-behinekoak dira, memoria egiten ari baita)

Era beran, Gobernuak haurren pobrezia inguruan egiten dituen jarduketak Europako Haur Bermerako (GIE) Estatu Planaren markoan kokatzen dira eta bertan ezarritako ildo estrategikoen, xedeen eta jomugen arabera dira. Haurren eta Nerabeen Batzorde Integralak koordinatzen ditu jarduketak.

Europako Haur Bermea (GIE) Europar Batasuneko Kontseiluaren gomendio bat da, estatu kideek 2021eko ekainaren 14an aho batez onetsia, eta xede du haurren pobrezia zikloa haustea, bermatuta pobrezia nahiz gizarte bazterketaren arriskuan dauden haur eta nerabe guztiek oinarrizko sei eskubide eta zerbitzu izaten ahal dituztela: haurrentzako hezkuntza eta zaintza, osasun laguntza, eskolaz kanpoko hezkuntza eta jarduerak, etxebizitza egokia, gutxienez ere bazkari osasuntsu bat egunean eta elikadura osasuntsua oro har.

Espanian GIE ezartzeko Estatu Plana (2020-2030) hiru ardatz estrategikoren inguruan dago egituratuta: haurren eta nerabeen babes soziala indartzea eta pobrezia aurka borrokatzea, eskubide sozialak unibertsalizatzea kalitatezko oinarrizko zerbitzu irisgarriak eta inklusiboak baliatzeko aukera eskura jarrita eta lurralde ekitatea, ingurune babesleak, berdinzaleak, inklusiboak eta parte hartzeak sustatzea. Aipatutako ardatzek 25 xede hartzen dituzte barne, 2025. urterako nahiz 2030erako jomugak dituztenak. Jomuga horiek betetzeko, Ekintza Planak neurri espezifikoak proposatzen ditu, erkidego bakoitzak dituen eskumenen, premien eta oinarrizko lerroaren arabera xedeak betetzeko esanguratsutzat zehaztu beharrekoak.

Marko horretan, Estatu Planak jasotzen dituen gaietan eskumena duten departamentuek berrikusi egin zituzten ezarritako neurriak eta neurri horiek gure Komunitatean izandako ezartze maila. Halaber, departamentu bakoitzak jarduketa batzuk egiteko konpromisoa hartu eta jarduketok finkatu ziren, baita departamentuarterako jarduketan kasurako ere, 2023 urterako. Honakoak izan dira jarduketak:

1. ardatza. Pobrezia aurka borrokatzea eta haurren eta nerabeen babes soziala indartzea

Helburuak:

1.1. Haurren pobrezia eta gizarte bazterketa murriztea

1.2. Haurren pobrezia larria murrizteko ahalmena areagotzea

Jarduketak:

1. Errenta bermatuaren prestazioak indartzea adingabeak dituzten familiei.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

2. Prestazio publikoak eskuratzeko oztopo administratiboak eta burokratikoak identifikatzea eta kentzea, informazio- eta arreta-sistemak hobetzea. AUNA proiektua.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

3. Laguntza fokalizatuei lotutako inklusio ibilbideak garatzea, BGDS barne; eskusioari betebetan helduta, barne hartzen dituztenak enplegu aukerak, baliabideak eta zerbitzu gaitzaileak. AUNA esperientzia.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

4. Enplegurako estimuluak aplikatzea errenta bermatua ematearen esparruan (Nafarroan BGDSaren gutxieneko errenta osagarria).

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

5. Hitzarmena Pobrezia Kontrako Sarearekin, pobrezia gaur egun duen eraginari buruzko diagnostiko bat egiteko

Arduraduna: Politika Publikoen Plangintza, Koordinazio, Berrikuntza eta Ebaluazioko Zuzendaritza Nagusia.

6. Babes sisteman familia programetara eta haurrei arreta ematekoetara bideratutako gastua areagotzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

2. ardatza. Eskubide sozialak unibertsalizatzea kalitatezko oinarrizko zerbitzu irisgarriak eta inklusiboak baliatzeko aukera eskura jarrita

Helburuak:

2.1. Irispide osoa bermatzea haur hezkuntzako lehen ziklora.

2.2. Haur guztiei bermatzea arreta goiztiarrerako irispidea

2.3. Hezkuntzako desberdinkeria murriztea

2.4. Eskola segregazioaren aurka borrokatzea

2.5. Haur guztientzako eskolaz kanpoko jarduerak eta aisia hezitzailekoak nahiz aisialdikoak bermatzea.

2.6. Arrakala digitala ezabatzea

2.7. Aho-hortzetako eta ikusmeneko zerbitzuetan estaldura handitzea, baita beste batzuetan ere.

2.8. Osasun mentaleko arazoetarako arreta ematea.

2.9. Haur guztiei elikadura osasungarria bermatzea.

2.10. Etxebizitza izateko irispidea sustatzea.

2.11. Pobrezia energetikoaren eragina murriztea.

2.12. Infraetxearen arazoa nabarmen murriztea

2.13. Haurtzaro babestua desinstituzionalizatzea.

Jarduketak:

7. Arreta Goiztiarreko Zerbitzua deszentralizatzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

8. Deribatze protokolo bat garatzea Osasun Departamentuaren eta Arreta Goiztiarreko Zerbitzuen artean.

Arduraduna: Osasun Departamentua eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

9. Helburua 45 egun Plana Arreta Goiztiarreko Zerbitzuan: 30 egun baloratzeko eskaeratik eta 15 esku hartzea hasteko.

10. Arreta goiztiarreko bi adin tarteen arteko trantsiziorako ibilbidea (0-3 urte eta 3-6 urte).

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua eta Hezkuntza Departamentua.

11. Gurasotasun positiboa sustatzea haur hezkuntzako ziklo osoan zehar.

Arduraduna: Hezkuntza Departamentua.

12. Neonatologiaren, oinarrizko Osasun Laguntzaren eta Arreta Goiztiarreko Zerbitzuen arteko trantsiziorako protokoloa arrisku biologiko handia duten adingabeentzat (oso goiztiarrak direnak).

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua eta Osasun Departamentua.

13. Arreta Goiztiarreko Zerbitzura jotzen duten arrisku psikosozialeko adingabeen jardunbide egokietarako protokoloa progresiboki ezartzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

14. Arreta goiztiarra eskubide subjektibo izateko arau garapena erkidego mailan.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

15. Hezkuntza inklusiboa lortzeko Proeducar-Hezigarri programa indartzea.

Arduraduna: Hezkuntza Departamentua.

16. Akonpainamenduko eta orientabide pertsonaleko nahiz familiarreko unitateak zaurgarritasun egoeran dauden ikasleentzako.

Arduraduna: Hezkuntza Departamentua.

17. Zaurgarritasun egoeran dauden haur eta nerabeek gaitasun digitalak eskuratzeko programa.

Arduraduna: Hezkuntza Departamentua eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

18. PADI (Haurren Aho-hortzetako Osasun Laguntzaren Programa).

Arduraduna: Osasun Departamentua

19. Osasun tratamenduetarako eta botiketarako laguntzak nahiz hobariak areagotzea zaurgarritasun egoeran dauden haur eta nerabeak dituzten familientzako:

Arduraduna: Osasun Departamentua

20. Haur eta gazteen psikologo eta psikiatren plantilla handitzea Osasun Mentalaren Estrategiaren Ekintza Planaren esparruan.

Arduraduna: Osasun Departamentua

21. Ongizate emozionala hobetzeko programak sustatzea.

Arduraduna: Osasun Departamentua.

22. Frutak, barazkiak eta esnea kontsumitzeko eskola programa.

Arduraduna: Osasun Departamentua

23. Sentsibilizazioa bizimodu osasuntsuaren inguruan.

Arduraduna: Osasun Departamentua.

24. Egunean bazkari osasungarri bat bermatzea.

Arduraduna: Hezkuntza Departamentua

25. Familia-harrera espezializatuko programa garatzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

26. Familia harreraren inguruan sentsibilizatzeko eta jendea sartzeko plana harrerako askotariko modalitateetan.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

27. Familian esku hartzeko programa indartzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

28. Familia harreran eta adopzioan laguntza emateko eta akonpainamendua egiteko zerbitzua indartzea

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

29. Egoitza harreran dauden haur eta nerabeentzako zerbitzu komunitarioak sustatzea.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

30. Babes sistemako (SIPSSNA-NAVAS) haur eta nerabeen gizarte zerbitzuen, osasunaren eta hezkuntzaren egoerari buruzko informazio sistema.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

31. Ohiko etxebizitzaren alokairua ordaintzeko gainkostua murriztea kolektibo zaurgarri jakin batzuetan.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

32. Navarra Social Housing Fase proiektua martxan jartzea.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

33. Gizarte eta Hezkuntza Esku hartzeko Ekipoaren dirulaguntza sustatzea etxebizitza publikoak alokairuan hartzeko parketarako.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

34. Etxebizitza Eskuratzeko Kenkarien Programa: ohiko etxebizitzaren errenta ordaintzen laguntzeko prestazioa ematen zaie zenbateko jakin batetik beherako diru sarrerak dituzten familiei, kideen kopurua kontuan harturik. Zenbateko hori Errenta Egokiagatik Erosahalten Nahikotasuna (ERREGEROSNA) indizea halako 1,7 da.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

35. Babes ofizialeko etxebizitza alokairuan hartzeko dirulaguntza sustatzea.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

36. Etxebizitza Sozialaren Foru Bankuaren zuzkidura sustatzea: jabetza publikoko etxebizitzak bazterketa egoera larrian dauden pertsona nahiz familientzako.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

37. Birgaitze babesturako dirulaguntzak.

Arduraduna: Etxebizitzako, Gazteriako eta Migrazio Politiketako Departamentua.

Zeharkako 3. ardatza. Lurralde ekitatea, ingurune babesleak, berdinzaleak, inklusiboak eta parte hartzeak sustatzea.

Helburuak:

3.1. Lurralde ekitateko politikak sustatzea haurrentzako.

3.2. Espazio inklusiboak sustatzea.

3.3. Espazio lagunkoiak sustatzea.

3.4. Indarkeriarik gabeko espazioak bermatzea.

3.5. Haurren parte hartzea bermatzea.

3.6. Aske haztea sustatzea.

3.7. Esku hartze integralak eta adingabearen interes gorena kontuan hartuta egindakoak sustatzea.

Jarduketak:

38. Barnhaus bat jartzeko proiektua: indarkeriaren biktima diren adingabeei arreta emateko zerbitzu integrala (lokala eta egokitze aurreproiektua ematea).

Arduraduna: Barneko, Funtzio Publikoko eta Justiziako Departamentua.

39. Haurren parte hartzea eta eskubideak zabaltzea: 12 hilabete 12 eskubide proiektua.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

40. NOZen lurraldearteko batzordean haurren eta nerabeen aurkako indarkeriari aurre egiteko batzordean parte hartzea.

Arduraduna: Osasun Departamentua.

41. Emakumeen kontrako indarkeriaren biktimei arreta integrala ematen dieten ekipoak sustatzea.

tzea: informazioa, aholkularitza eta esku hartze psikosoziala.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

42. Indarkeriaren emakume eta adingabe bizi-rauleei arreta emateko baliabideak sustatzea.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

43. Familia aisialdiko programa indarkeriaren biktima diren emakumeentzako eta beren seme-alabentzako.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

44. Salerosketaren eta prostituzioaren biktima diren emakumeentzako eta beren seme-alabentzako laguntzako eta harrerako bizitegi baliabideak sustatzea.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

45. Emakumeen mutilazio genitalaren aurkako protokoloa eta hitzarmena.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

46. Programa komunitarioak sustatzea haurren parte hartzearen inguruan.

Arduraduna: Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

47. Generoko indarkeriak hildako emakumeen seme-alabentzako dirulaguntzei buruzko txostena.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

48. Behartutako ezkontzari buruzko protokoloa.

Arduraduna: Berdintasunaren Nafarroako Institutua

49. Haurren parte hartzerako aholkuak askotariko lurraldetan. Babes sistemaren parte hartzerako kontseilua.

Arduraduna: Lehendakaritzako eta Berdintasuneko Departamentua. Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko Departamentua.

50. Administrazioarteko koordinazioa hobetzea osasunaren, gizarte zerbitzuen eta haurren eta nerabeen arreta integralerako hezkuntzaren artean.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00230. Galdera, Nafarroan haur pobreziaren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak Nafarroan haur pobreziaren arazoa konpontzeko aurreikusitako jarduketei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00230). Hona hemen galdera eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

• Zer jarduketa aurreikusten du Gobernuak Nafarroan haur-pobreziaren arazoa konpontzeko?

Aurrez jadanik jakinarazi denez, Gobernuak haurren pobreziaren inguruan egiten dituen jarduketak Europako Haur Bermerako (GIE) Estatu Planaren markoan gauzatzen dira eta bertan ezarritako ildo estrategikoen, xedearen eta jomugan

araberakoak dira. Haurren eta Nerabeen Batzorde Integralak koordinatzen ditu jarduketak.

2023ko abenduaren 21ean, Nafarroako Haurren eta Nerabeen Batzorde Teknikoak bilera egin zuen, besteak beste, 2023rako GIE ezartzeko planean proposatutako jarduketei buruzko informazio bilketa koordinatzeko, eta jarduketa horien berri eman dugu jadanik. Beste bilera bat jarri da otsailaren 15erako, zeinean jarduketetako arduradunek informazio aurkeztu beharko baitute ezarritako xedearen betetze mailari buruz, eta 2024. urterako neurriak ezarri beharko dituzte ere bai. 2024ko jarduketak zehazte aldera erreferentzia gisa erabiliko dira estatuko estrategiak 2025era begira ildo estrategiko bakoitzerako finkatzen dituen xedeak.

Aurreratzen ahal dugu neurri horietako bat dela haur hezkuntza doakoa izatea 0-3 urteko adin tartean datorren ikasturterako.

Era berean, jakinarazten da mantendu egingen direla diru sarrerak bermatzeko sistemaren prestazio ekonomikoak.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00231. Galdera, García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Leticia San Martín Rodríguez andreak García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua indartzeari buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2023ko abenduaren 29an

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro (UPN) talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Leticia San Martín Rodríguez andreak 11-23/PES-00231 galdera egin du, idatziz erantzun dakion, honako hau jakiteko: "García Orcoyen Ospitaleko erditzeen zerbitzua Nafarroako beste osasun-barruti

batzuetako ginekologoekin indartu da abenduaren hasierara arte, eta horri esker zerbitzua ematen jarraitu ahal izan du, baina lankidetzaz hori abenduaren hasieran eten da. Zergatik?". Hona hemen Nafarroako Gobernuak Osasuneko kontseilariak horri buruz ematen dion informazioa:

Iruñeko Nafarroako Ospitale Unibertsitarioko Ginekologia eta Obstetriziako profesionalek borondatezko laguntza eman dute duela hilabete batzuetatik Lizarrako García Orcoyen Ospitaleko Ginekologia eta Obstetrizia Zerbitzuan, eta abenduan zehar mantendu da zerbitzu horren zaintzetarako profesionalen prestasunaren arabera.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2023ko abenduaren 28an

Osasuneko kontseilaria: Fernando Domínguez Cunchillos

11-23/PES-00232. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00232). Hona hemen galdera eta Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

- Zergatik ez dago lanerako baliagarri 2022an errenta bermatua eskuratu zuten pertsonen erdia baino gehiago? Zehazki, 2.540 pertsona 4.952tik.

Hona Nafarroako Gobernu Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariaren erantzuna:

Gizarteratzeko eta Errenta Bermaturako Eskubideak arautzen dituen azaroaren 11ko 15/2016 Foru Legeak 18 c) artikuluan ezartzen duenez, betebeharrak da lan egiteko adinean dauden jasozaile guztiak enplegu egokiaren eskaintzak hartzeko prest egotea, eta onartzea gertatzen direnean, salbu eta, erregelamenduz ezartzen diren zerbitzu publikoen iritziz, lan merkatuan edo

enplegu babestuan sartzeko egoeran ez dauden pertsonak badira.

Lehenago aipatu pertsonen inskribaturik egon beharko dute, enplegu eskatzaile gisa, Nafar Lansare-Nafarroako Enplegu Zerbitzuaren bulegoetan, salbu eta egoera administratibo irregularrean dauden pertsonak.

Hori horrela, foru lege hori garatzen duen apirilaren 25eko 26/2018 Foru Dekretuak ezarritako zerbitzu publikoen harira, 25 c) artikulua honako hau ezartzen du: oinarrizko gizarte zerbitzuak zehaztuko du, egoera pertsonalak eta familiako egoerak kontuan hartuta, familia unitateko zer pertsonak ez dituzten betetzen lan merkatu sartzeko baldintzak, eta egoera horren berri eman beharko du prestaziorako eskaeran. Horretarako, enplegu zerbitzuei eta beste zerbitzu publikoei dagokien informazioa biltzen ahal du.

Beraz, errenta bermatuaren espedienteetan jasota dago laneratzeko prest egoteari buruzko informazioa, baina ez, ordea, artatutako inguruabar zehatz eta bereziak. Hala ere, oinarrizko laguntzako gizarte zerbitzuekin izandako koordinazioa eta esperientzia oinarri, adierazten ahal dugu enplegu bat eskuratzeko prest ez egoteko ohikoen diren inguruabarrak direla administrazio egoera irregularra, gazteen prestakuntza (16-18 urte) eta laguntza sareen eskasiaren ondorioz lana eta familia bizitza bateragarri egiteko ezintasuna.

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

11-23/PES-00233. Galdera, errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateei buruzkoa

FORU DIPUTAZIOAREN ERANTZUNA

Legebiltzarreko Erregelamenduko 125.1 artikuluan ezarritakoa betez, agintzen dut Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitara dadin Raquel Garbayo Berdonces andreak errenta bermatua izan baina enplegurako erabilgarri ez dauden pertsonen nazionalitateei buruz egindako galderaren erantzuna, Foru Diputazioak emana. Galdera 2023ko abenduaren 22ko 50. Nafarroako Parlamentuko Aldizkari Ofizialean argitaratu zen.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Lehendakaria: Unai Hualde Iglesias

ERANTZUNA

Unión del Pueblo Navarro talde parlamentarioari atxikitako foru parlamentari Raquel Garbayo Berdonces andreak galdera egin du, idatziz erantzun dakion (11-23/PES-00233), honako hau, zehazki:

- Zein da errenta bermatua eskuratu zuten 4.952 pertsonen artean lanerako baliagarri ez dauden 2.450 pertsonen nazionalitatea?

Hona Nafarroako Gobernuako Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilariak ematen dion informazioa:

Honako hauek dira enplegurako prest ez dauden nazionalitateak:

NAZIONALITATEA	PERTSONA KOP.
Albania	1
Aberrigabeak	9
Aljeria	105
Argentina	12
Bangladesh	1
Bielorrusia	2
Bolivia	16
Brasil	26
Bulgaria	23
Kamerun	3
Txile	6
Txina	1
Kolonbia	366
Komoreak	1
Boli Kosta	1
Costa Rica	3
Kuba	20
Ekuador	27
Egipto	1
El Salvador	15
Espainia	426
AEB	1
Frantzia	1
Gambia	6
Georgia	16
Ghana	19

NAZIONALITATEA	PERTSONA KOP.
Guatemala	7
Ginea	5
Honduras	77
India	1
Italia	6
Kenya	1
Mali	4
Malta	1
Maroko	700
Mauritania	1
Mexiko	5
Moldavia	5
Mongolia	1
Nepal	2
Nikaragua	97
Niger	1
Nigeria	51
Pakistan	31
Palestina	1
Paraguai	6
Peru	202
Portugal	11
Erresuma Batua	2
Kongoko Errepublika	1
Dominikar Errepublika	23
Errumania	37
Errusia	5
Senegal	50
Siria	8
Tunisia	7
Turkia	2
Ukraina	33
Uganda	1
Uruguai	5
Venezuela	42
GUZTIZKO OROKORRA	2.540

Hori guztia jakinarazten dizut, Nafarroako Parlamentuko Erregelamenduaren 215. artikulua betez.

Iruñean, 2024ko urtarrilaren 10ean

Eskubide Sozialetako, Ekonomia Sozialeko eta Enpleguko kontseilaria: María Carmen Maeztu Villafranca

